




# AURREIRITZIEK ERE BIDAIATZEN DUTE

GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA ETA LGTBI+  
PERTSONA MIGRATU ETA ERREFUXIATUAK





Berastegui, 5 - 5º Bilbao, 48001

Tel. 944237296 - 665734428

[www.aldarte.org](http://www.aldarte.org)



@AldarteOrg



AldarteZentroa-Centro



aldarte\_zentroacentro

- DATA: martxoa, 2023 - 2. edizioa: 2024
- ARGITARAUA: ALDARTE
- EGILEAK: Elena Olaortua eta Joseba Mtz.de Guereñu.
- MARRAZKIAK: Miguel González de Garay  [mi.gren.m](mailto:mi.gren.m)
- IMPRESIOA: Lankopi
- LAGUNTZAILEA:

## AURKEZPENA

ALDARTE "LGTBI+ Arreta eta Dokumentazio Zentrua" 1994tik laguntza, sozializazio, hezkuntza eta sentsibilizazio baliabideak eskaintzen dizkio gizarteari oro har bere aniztasunean.

Azken 10-15 urteetan, ALDARTEtik, maila lokal-globaleko aldaketa demografikoekin bat etorritik, beste herrialde batzuetatik etorritako LGTBI+ pertsonen kopurua etengabe handitzen ari dela ikusi dugu, eta gaur egun gure elkarteko baliabide eta zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen % 60 baino gehiago direla.




Errefuxiatuez/asilo-eskatzailuez (Nazioarteko Babesdunak, aurrerantzean NB) hitz egiten dugunean, gizarte-iruditeria gerran dauden herrialdeetatik (adibidez, Siriatik, Ukrainatik) edo ezegonkortasun politikoa duten herrialdeetatik (esaterako, Venezuelatik edo Nikaragutatik) ihes egiten duten pertsonekin lotzen dugu. Oraindik ere kostatzen da babes hitza identifikatzea LGTBI+ pertsonekin, LGTBI+fobia oso presente dagoen herrialdeetatik ihes egiten dutenekin.

Dibulgazio-koaderno honek ikusgarritasuna eman nahi die LGTBI+ pertsona migratuei, asilo-eskatzailuei eta errefuxiatuei, eta haien problematikei heldu, jatorrizko herrialdeetan eta hemen Bizkaian; izan ere, LGTBI+ pertsonak ari garenean, gizarte-iruditeriak LGTBI+ pertsonak identifikatzen ditu, batez ere, gizon batekin, gazte-heldua, zuria eta autoktonoa. Gutxitan, LGTBI+ pertsonekin lotzen den irudia beste herrialde bateko pertsona batena da, eta are gutxiago LBT emakume batena (Lesbiana, Bisexuala, Transa).

Metodologia hau erabili da:

- Lan-tailer bat egin zen, eta bertan asiloarekin lotutako erakunde eta profesionalek parte hartu zuten, baita Peru, Kolonbia, Jamaika, Georgia, Venezuela, El Salvador, Mali, Maroko eta Ghanatik etorritako LGTBI+ pertsonak ere.
- Elkarrizketa pertsonalak hainbat LGTBI+ pertsonari, bizitzako historietan jasoak.
- ALDARTEk eguneroko lanean duen esperientzia LGTBI+ pertsona migratuekin, asilo-eskatzailuekin eta LGTBI+ errefuxiatuekin, taldeetan eta gainerako zerbitzuetan.







## ZERRI EGITEN DIOTE IHES LGTBI+ PERTSONEK

### Aniztasun sexualarekiko aurreiritzi eta estereotipoak

Herrialde batzuetan, LGTBI+ izatea espetxe-zigorrekin zigortuta dago, baita heriotza-zigorrekin ere. Herrialde horietako legediek berariaz jotzen dute delitutzat LGTBI+ izatea, eta LGTBI+fobia gizartearen esparru guztietan dagoela islatzen eta egiaztatzen duten zigorrak ezartzen dituzte.

Herrialde batzuetan berdintasunezko ezkontza edo trans pertsonen eskubideak ere araututa daude, eta hala ere, LGTBI+ pertsonak egiturazko LGTBI+fobia jasaten dute. LGTBI+ pertsonen aurkako diskriminazioa, jazarpena, erasoak edota beste **indarkeria**-adierazpen batzuk beste testuinguru batzuetan gertatzen dira, hala nola familian, gizartean edo lanean edo polizian, eta hortik ere ihes egiten dute LGTBI+ pertsonak.

Adibide gisa, aipatu behar da Kolonbiatik heltzen dela LGTBI+ pertsona gehien ALDARTEra. Herrialde horrek lege onartzen du berdintasunezko ezkontza, baina **LGTBI+fobia estrukturala** oso errotuta dago, eta Marcela bezalako pertsonak bertatik ihes egiten dute. Horren bizi-historia jasotzen dugu material honetan.

LGTBI+ pertsonak ihes egiten diote familiaren, gizartearen eta komunitatearen gaitzespenari, eta ihes egiten diete arauz kanpoko portaerak dituzten pertsonak baztertzen dituen sistema heteronormatibo, heteropatriarkal eta binarista batek ezartzen dituen estereotipo eta aurreiritzietatik. Tailerrean parte hartu dutenek beren jatorrizko herrialdeetako aurreiritziak eta estereotipoak partekatu zituzten, baita hemen, euren jatorrizko komunitateetan ematen direnak ere:

- LGTBI+ esperientziak gaixotasunekin (hepatitisa, GIB-hiesa) lotzea, LGTBI+ pertsonak gainerako biztanleek baino gaixotasun gehiago dituztela eta kutsatzen dutela aintzat hartuta. Ideia hori oso ohikoa da hezkuntzaren esparruan eta adingabeei dagokienez, LGTBI+ pertsonak urrun egon behar dutela dioten esamoldeak eta ideiak erabiliz. Tailerrean parte hartu zuen pertsona batek, irakasle gay batek, adierazi zuen behin edo behin errieta egin ziotela honako esamolde honekin: "haurrak kutsatuko dituzu". Ia ezinezkoa da modu agerian LGTBI+ bezala agertzen den pertsona bat irakaskuntzan edota osasun-arloan aritzea Venezuelabezalako herri batetan.

- LGTBI+ errealitatearekiko aurreiritziek eta estereotipoek lotura zuzena dute **matxismoarekin** eta gizonen eta emakumeen esleitzen zaizkien genero-adierazpenekin: gizon afeminatuak gayak dira; negar edo dantza egiten duten haurrak gayak dira, beti neskekin ibiltzen dira; lesbianak oso maskulinoak dira.

- Testuinguru askotan eragin sozial handia dute **erlijio**-aurreiritziek, LGTBI+ pertsonen aurkako arbuioa eta diskriminazioa justifikatzeko erabiltzen direnak. Gai honi buruz tailerrean atera ziren ideia batzuk jaso ditugu: LGTBI+ izatea deabruak hartuta egotearen kontua den ustea, debekatuta dago, exorzismoen bidez senda daiteke, eta otoitza homosexualitatearen sendabide gisa erabiltzen da.

- Mespretxuzko **esamoldeak** erabiltzea ("mariquitas, cochón, cachaperas, areperas, tortilleras...") eta arbuiozko erreakzioak LGTBI+ pertsonak zirela jakitean: "nire nagusiak nirekin hitz egiteari utzi zion hori jakitean, gaya nintzela esaten zioten, prostituitu eta trabestitu egiten nintzela".

- SGAREN **berri ez izatea**: sexu-orientazioa genero-identitatearekin nahastea: Kolonbiako mutil gay bati, gaya zela jakin zutenean, ebakuntzarik egingo ote zioten galdetu zioten.





## PERTSONA LGTBI+ MIGRATU ETA ERREFUXIATUEN ARAZO ETA BEHARRAK

Arazo komun batzuk daude LGTBI+ pertsona migratuen eta errefuxiatuen errealitatearen inguruan, eta guztiek dituzte.

**Etxebizitzaren** gaia nabarmenduko dugu.

Alde batetik, etxebizitzarako **sarrerari** dagokionez, **zailtasun** handiak daude pertsona migratu gisa etxebizitza eskuratzeko, tailerrean parte hartu zuen pertsona batek adierazi zuen bezala, “askoz ere gehiago LGTBI+ zarela esaten duzunean”. Etxebizitza edo logela bilatzea arazo nagusietako bat da ageriko LGTBI+ pertsona migratu gisa egiten denean.

Bereziki nabarmendu nahi ditugu LBT emakumeek etxebizitzari dagokionez dituzten zailtasunak. Beldurra dela-eta **ikusezin** bihurtzen direnez, beste indarkeria mota baten eraginpean geratzen dira. Tailerrean parte hartu zuen emakumeetako batek logela bila ibili zirenean izan zuten esperientzia partekatu zuen. Ez zuten esan bikotea zirenik, eta etxea partekatzen zuten gizonak izaera sexualeko iradokizunak egiten zizkien etengabe.

Ikasketak baliozkotzeko **oztopo burokratikoa** da beste gai errepikakor eta komun bat da migratzaile guztientzat, haien ibilbide pertsonala eta, beraz, haien bizi-kalitatea izugarri zailtzen duena. Erdi edota goi mailako ikasketak dituzten pertsona migratu askok ezin dute beren lanbidean jardun iristen direnean; izan ere, tituluak baliozkotzea kostatzen den diruak eta denborak (kasu batzuetan bi urte baino gehiago) **hutsetik hastera** behartzen ditu, eta zekarten ezagutza guztia galdu eta uko egitera. Kasu askotan, lan-eremu prekarizatueta lan egitera behartuta egonda.

Egoera hau bidegabekeriazko sentsazioarekin eta ulermen ezarekin bizi dute hainbat LGTBI+ pertsonak, iristen direnean haien prestakuntzak eta esperientziak ezertarako balio ez dutela ikusten baitute. “Ni medikua naiz, eta nire titulua baliozkotu ahal izan dudanez ezin izan dut jardun, eta gizon bat zaintzen aritu naiz. Frustrazio handia eragin zidan dena ze zaila jartzen ari zen ikustea”. Nikaraguako mutil bat kexu zen.

### LGTBI+fobia jatorrizko komunitateetan:

LGTBI+fobia bizkaiko gizartearen esparru askotan dago. LGTBI+ pertsonak, arbuio eta diskriminazio egoerak bizi dituzte beren bizitza garatzen duten inguruneetan, eta LGTBI+ pertsona migratuek jatorrizko komunitateetan ere jasan dezakete.

**“Aurreiritziek ere bidaiatzen dute”** tailerrean parte hartzen duen Nikaraguako mutil batek hitzez adierazitako esaldi bat da, eta LGTBI+ pertsonen artean oso esperientzia hedatua eta komuna dagoela islatzen du, Bizkaian beren herrialdeko pertsonekin harremanetan jartzen direnean, jatorrizko komunitateekin harremanetan jartzen direnean eta SGARI buruzko ideia negatiboak beren herrialdeetan bizi zireneko berberak direla eta modu berean inposatzen direla hautematen eta ikusten dutenean.

Pertsona askok adierazten dute, gehiengoak, ez direla ausartzen LGTBI+ pertsona gisa ikusaraztera jatorri bereko pertsonen artean, jasaten duten gaitzespenagatik. **Beldur** direla adierazten dute, eta kasu batzuetan irainak eta **diskriminazioa** jasan dituztela beren jatorrizko komunitateek.







Genero-adierazpenak **disimulatu eta ezkutatu** behar dituzten pertsonak, beren bizi-kalitatea hainbeste hobetu ez dela sentitzen dutenak, euren herrialdeetatik ihes egin zutenak, uste zuten askatasuna ez dutelako aurkituko, aurreiritzi eta estereotipo berberak jasaten baitituzte. Hala adierazi zuen Kolonbiako emakume lesbiana batek tailerrean: “Nahiago dut bazterketa saihestu”.

Jatorrizko komunitateak harrera-gune izan beharko luke herrialde ezezagun batean, non sozializazio-sareak izatea hain garrantzitsua den, baina LGTBI+ pertsona askorentzat ez da eremu segurua, askatasunez adierazteko; horren ondorioz, pertsona asko **isolatu** egiten dira eta bakardade-egoerak bizi dituzte, eta beraz, egoera zaurgarriagoak dira. ALDARTEN kaleko egoeran dauden hainbat mutil gay artatu ditugu (Marokokoak, Tunisiakoak eta Saharaz hegoaldeko Afrikakoak), beren herrialdeko komunitate eta elkarteekin inolako harremanik izan gabe, ez baitute nahi gay direla jakiterik.

Kontuan hartuta LGTBI+ pertsonak jatorrizko komunitateak ez dituztela espazio segurutzat hartzen, eta askotan uko egiten diotela jatorri bereko pertsonekin harremanak izateari, lehen ikusi dugun bezala, beste LGTBI+ pertsonak ezagutzeko **sozializazio-espazioak** dira eskaera eta behar nagusietako bat. Hitz egiteko, bazterketarako beldurrik gabe partekatu ahal izatea, kezkak adierazteko askatasuna izatea edo, besterik gabe, beste LGTBI+ pertsona batzuk ezagutzeko eta babaestuak daudela sentitzeko gune horiek oso lagungarriak dira haien **ongizate emozionalerako** eta **integrazio**-prozesurako.





## PERTSONA LGTBI+ ERREFUXIATU ETA ASILO ESKATZAILEEN ARAZO ETA BEHARRAK.

Asiloari buruzko Espainiako legeal sexu-orientazio eta identitateagatiko jazarpena aitortzen du, beraz, LGTBI+ pertsonak nazioarteko babesa eskatzeko eskubidea dute, eta estatuak haiek babesteko betebeharra.

Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen kasuan, hainbat arazo daude administrazio-espedientearen prozesu eta **izapidetze** guztiarekin lotuta, eta arazo horiek zaildu egiten dute, neurri handi batean, pertsona horiek beren bizitza berregin ahal izatea oztopo-lasterketa bihurtu gabe, eta hori agerian geratu zen tailerrean.

Hurrena arazo nagusietako bi aipatzen ditugu:

### • Babes-sisteman sartzeko zailtasunak.

Bizkaian, nazioarteko babes-eskaera izapidetzeko lehen hitzordua lortzeko sistema da lehen arazo nagusia. Pandemiak (hitzorduen administrazio-mailako prozesu askoren digitalizazioarekin) eta Ukrainako Gerrak (BI eskaera asko eragin ditu) eragin dute pertsonak hilabeteak behar izatea lehen hitzordua lortzeko. 2023ko martxora arte, Polizia Nazionalaren webgunearen bidez baino ezin zen lortu, Bizkaian behin eta berriz kolapsatuta zegoena eta ez zegoen hitzordurik eskuragarri asilo-programarako eta haren baliabideetarako sarbidea oztopatuz eta atzeratuz, eta horrek eragin oso negatiboa izan du pertsona askoren gizarteratze-prozesu pertsonalean.

**Eten digitala** asilo-eskatzaileek izan duten arazo handienetako bat bihurtu zen, horietako askok ez baitzuten 24 orduz Internetarako sarbiderik. Gaur egun, sistemara sartzeko eta eskaera formalizatzeko modu presentzialera itzultzen ari gara. Espero dugu eskatzaileen eskubide hori berriro urratuko ez dela baliabiderik ezarekin zerikusia duten kontuengatik.

### • Asiloarekin lotutako zenbait administrazioen sentsibiltate falta:

Zalantzaragarria da polizia-kidego batek egitea nazioarteko babesa eskatzeko elkarrizketak. Gai hori ez da poliziaren ohiko funtzioen barruan sartzen, askotan, kontakizunaren bilketa **galdeketa** bihurtzen baitu. Gainera, LGTBI+ pertsona askok esperientzia oso negatiboa izan dute beren jatorrizko herrialdeetan poliziarekin, eta kasu askotan zuzeneko indarkeria erabili duen agente diskriminatzailea izan da haientzat.


Gainera, agerian geratu da kontakizuna jasotzen dutenek ez dutela prestakuntza espezifikorik jasotzen sexu- eta genero-aniztasunari buruz. Elkarrizketa egiteko ardura zuen agenteak LGTBI+ siglek zer esan nahi zuten ere ez zekiten kasuak aipatu dizkigute. LGTBI+ pertsona batzuek aurreiritziko adierazpenak aipatu dituzte elkarrizketan poliziaren aldetik, **estereotipo oker** asko agerian utziz eta euren kontakizunaren egiazkotasuna zalantzan jarritz, hau ez baitator bat eskaera jasotzen duen poliziaren iruditeriarekin.

Tailerrean parte hartu zuen mutil batek esan zuen elkarrizketatu zuen poliziak esan ziola "ez zuela gay itxurarik".

Sentikortasunik ezaren beste erakusgarri bat da oso salbuespen gisa baino ez dela onartzen eskaeran pertsonari beste batek laguntzea, eta horrek segurtasunik eza eta beldurra sortzen ditu.













## BIZITZA HISTORIAK

Jarraian jasotzen ditugun testigantzek Kolonbia, Boli Kosta, Maroko, Jamaika eta Ghanako bost pertsonaren esperientziari ahotsa ematen diote, baina izendatzaile komun batekin, LGTBI+ izateagatik beren herrialdeetatik ihes egin dutenena.

Beren bizitzaren historia partekatu digutenen segurtasuna eta lasaitasuna bermatzeko, izenak eta erreferentzia batzuk aldatu ditugu, ezagut ez daitezen. Era berean, bere adierazpenen literaltasunari eta bere historia kontatzeko moduari eutsi diogu.

## MARCELAREN KONTAKIZUNA

Marcela naiz, eta Isabelekin ezkontuta nago, biok Kolonbiakoak gara, 11 urteko bikote-harremana dugu, eta horietatik 10 urte ezkutuan eduki genuen, gure familiaren, lagunuen eta lankideen bidez gure inguruan sor litekeen eraso, errepresio, arbuio eta homofobiaren beldur, Kolonbiako gizartean homosexuala izatea gauza izugarria baita. Arratsalde batean, Isabelen etxeko egongelan, musu eman genion elkarri, eta auzokide batzuek ikusi gintuzten; haiek arduratu ziren ikusitakoa auzo osoan zabaltzeaz, eta gainera, lesbianak haurtzarorako eredu txarra zirela aipatu zuten. Gaia ez zen hor geratu; aitzitik, nire senideek, lagunek, lankideek eta baita pertsona ezezagunek ere jakin zuten.

Egoera hain zen jasangaitza, ezen bikote-harremana argi eta garbi bizitzea erabaki baikenuen. Egoera baretu egingo zela pentsatu genuen, baina urtebete baino gutxiagoan zalantzak eta beldurrak zentzua hartzen hasi ziren. Asmo txarreko adierazpenak eta isekak egunetik egunera hazten ari ziren.

Amak, aitormen ebanjelikokoa duena, lesbiana nintzela jakin zuenean, gaitzetsi egin ninduen, hitz egitea ukatuz eta kondenatua izango nintzela esanez. Ahizpek epaitu ninduten eta lesbiana izatea kutsakorra dela esan zidaten. Nire familiak uko egin zion nire sexu-joerari, eta lotsagarri ikusten naute familiarentzat. Nire alaba zaharrenak ez zuen onartzen Isabelekin nuen harremana, eta zalantzan jartzen zuen. Hala ere, neskatoak errespetuzko eta onespenezko jarrera izan du beti.

Auzokideek egunero oihukatzen ziguten: "lesbianak, deabruaren alabak, infernua erreko dira, marimutilak", tratu txar psikologiko horrek guztiak hainbestearaino eragiten zidan, non ez bainuen lanera joan nahi.

Lanean ari zirela, hainbesteko mespretxua zegoen, non, makina batean ordezkotako bat egitera joan nintzenean, nire ikaskideetako batek esan baitzuen "lesbiana" bat nintzela, eta ez ote zion beldurrik ematen nire lagunari "maricada" kutsatuko ote nion. Homofobia hain zen neurrigabea lanean, non gaixotasun kutsakor bat genuela sentiarazten ziguten, biok arropa-fabrika berean lan egiten baikenuen. Tentazioa izan genuen lana uzteko, baina beldurra ematen zigun laneko ezeگونkortasunean geratzeak.



Egoera horrek guztiak larritasuna, beldurra eta sufrimendua sortzen zizkidan. Gaitzespena sentitzen nuen ingurune hurbil eta ezagunetik, hala nola nire familiarik, auzotasunetik eta mehatxatzen gintuzten pertsona ezezagunetaraino; horregatik guztiagatik, bakarrik geratu nintzen, ez nuen laguntza psikologikoa bilatzeko indarrik, baina, sufrimendua ez zen hor geratu. 2022an, nire etxetik gertu, gizon batek eraso egin zigun, lizunkeriak eta mehatxuak esan zizkigun motor batetik: “areperas, lotsagabeak, desagertu desagertarazi egingo zaituztegu”. Beldurra areagotu egiten zen segurtasun ezagatik eta alabengana irits zitekeen errepresaliagatik

Lehen gertakaria gertatu eta astebete baino lehen, beste gertaera bat gertatu zen. Handik egun gutxira, 05:30etan, motor batean nindoan lanera (bikotekidearekin batera). Semaforo gorri batean gelditu ginen. Gizon bat oihuka hasi zitzaigun: “lesbianak, areperak, deabruaren alabak” eta autoa jo zuen gu geunden motorraren gainean (ni eta nire neska). Nik motorretik salto egin nuen eta garrasika eta laguntza eske joan nintzen. Erantzunik ez nuenez, Isabelengana itzuli eta motoa gainean zuela ikusi nuen. Gizonak hankaren gainetik pasatu zion autoa, eta hainbat lesio eta kontusio eragin zizkion. Azkenean, anbulantzia bat bertaratu zen, eta traumatologia-klinika batera eraman gintuen, non Isabeli arreta egin zioten.


Salaketa fiskaltzaren eta poliziaren aurrean jarri genuen, baina egun batzuk igaro ondoren, espedientea itxi zuten, “froga faltagatik”.

Nire familia, lagun, auzotasun eta autoritateen babesgabetasunaren aurrean, beste hiri batera joan ginen non Isabelekin ezkondu nintzen, eta gero Calira joan ginen.

Maiatzean Espainiara iritsi ginen, baina ni iritsi baino egun batzuk lehenago neska lesbiana bat hil zuten bizi ginen auzotik gertu, LGTBI+ komunitateko kide izateagatik bakarrik, antzeko metodo bat erabili zuten, bera ere motor batean zihoan.

Kolonbian sexu bereko pertsonen arteko ezkontza onartu den arren, gizartea matxismoz, aurreiritziz eta estereotipoz josita dago, eta homofobia bihurtzen da.

Bilbora iristean, Aldartera joan ginen, Kolonbian ez ginen inoiz LGTBI+ talde batera joan, beldurrez eta lotsaz. Orain Aldarten parte hartzen dut nire emaztearekin, eta Bilboko LGTBI+ komunitateko beste pertsona batzuekin partekatzen dugu.





## MICHAEL-EN KONTAKIZUNA

Michael naiz eta Boli Kostakoa naiz.

Boli Kostako gizarteak, oro har, ez du onartzen LGTBI+ kolektiboa. Karisma minimo bat ez baduzu, indar mentala, ezin duzu biziraun. Sexu-orientazioa bizitzeko modu bakarra ezkutatzea da. Ezinezkoa da gay gisa ikusgai izatea eta iraindua, fisikoki edo ahoz erasotua edo baztertua ez izatea. Ezin da zure bikotekidearekin adierazpen publikorik izan. Gizon homosexual asko ez dira ikusgai agertzen, beraz, inork ez daki, oso isolamendu sozial gogorrera arriskatzeko direlako. Gauza bera gertatzen da emakumeekin, emakume bat beste emakume batekin dagoela jakiten dutenean "alferrik galtzea" terminoa erabiltzen dute. Jendeak bizitza bikoitza izan behar du arazoak saihesteko. Gay afeminatuek ahalegin handia egiten dute beren keinuak kontrolatzeko. Aurkitzen dituztenean arazo familiar asko sortzen dira, familiarentzat zoritxar bat direla eta zorte txarra dakartela pentsatzen da.

Nire herrialdeko LGTBI+ pertsonetako estereotipoek eta aurreiritziek erlijioan dute oinarria. Gizarteak erlijio musulman eta kristauen (katolikoa eta ebanjelikoa) eragin handia du, homosexualitatea bekatutzat hartzen baitute, deabruaren gauzatza. Diskurtsoa oso homofoboa da.

Ebanjelikoa nintzen. Artzainaren sermoiak homosexualitateari buruz entzuten nituzenean deabruzko jabetzarekin lotzen zuen, homosexualak exorzizatu behar zirela esaten zuen, gaizkiaren irudikapena direlako, infernura joango den deabruaren jendea. Horrelako mezuak Internet bidez ere entzuten nituen. Hierarkia ebanjelikoaren komentarioak entzun nituen: "zure amak ez zintuen erditu behar, abortatu egin behar zuen".

Gainera, gertutik bizi izan nituen kredo bereko lagun homosexualen esperientziak. Haien familiek homosexualak zirela jakin zutenean, artzainengana eramane zituzten, haiek exorzizatzeko. Praktika erlijiosoa bertan behera utzi nuen, homosexualitatea deskubrituko zuten beldurrez.

Estatuak eta polizia ez dituzte LGTBI pertsonak babesten, eta ez dituzte pertsonatzat hartzen, eraso fisikoak jasaten badituzte, ez zaie axola, ez dute salagarritzat jotzen.

Lanetan, gay bat aurkitzen badute, egunkarietan atera daiteke, kaleratu dezakete, lankideen erasoak jasan ditzakete, agian ez dute berriro kontratatuko inongo lanetan eta prostituzioan amaitu.



Bikote harremana izan nuen, baina ezkutatu egin behar genuen, kaletik gindoazenean bananduta joan behar genuen, bata aurrean eta bestea atzean urrutitik. Ezin ginen hotel batera joan, ezta bataren edo bestearen etxera ere. Zelaietan ikusten genuen elkar jendearengandik urrun hitz egiteko, kontu handiz ibili behar genuen, baina egun batean auzoko pertsonak aurkitu gintuzten. Berria auzoan zabaldu zen. Mutil jatorra nintzela uste zuten auzotarrek, "nazkagarria" nintzela esaten hasi zitzaizkidan. Erreakzioak oso txarrak izan ziren, begirada "gaiztoak" bezalakoak ziren, beldurra ematen zidatenak, iraintzen nindutenak, esaten zidatelarik: "sorginduta" nengoela, "sorgina nintzela", "familiarren lotsa nintzela". Eraso fisiko publiko bat jasatekin libratu nintzen, baina ez mehatxu eta debekuetatik, ezin nintzen kale batzuetatik edo nire auzotik joan.

Bikotea nuela jakin zutenean izan nituen arazoak hiriburuan gertatu ziren. Egoera horren ondorioz, bi urtez kalean lo egin nuen, bainugela publiko batean lo egin nuen, eta horrek depresio handia eragin zidan. Ez dut nire herrira itzuli nahi, badakidalako gaitzespen bera jasango nukeela, eta ez dut uste berriro jasateko gai izango nintzatekeenik. Bakarrik egon nintzen denbora guztian eta ez nuen inoren laguntzarik izan. Gero, 2017an, Boli Kostatik alde egitea erabaki nuen.

Aldarten gustura sentitzen naiz bizipen berberak partekatzen dituen jendearekin nagoelako, gai honi buruz askatasunez hitz egin dezakedanarekin, oso garrantzitsua baita niretzat, ez naiz lotsatzen. Hemen sentitzen dudana askatasuna ezin dut nire herrialdean izan. Boli Kosta nengoenean ezin nintzen modu irekian bizi.





## MUSTAFA-REN KONTAKIZUNA

Mustafa naiz, Marokon jaio nintzen, 30 urte ditut, industria-ingeniari gisa graduatu nintzen eta lehen hezkuntzako irakasle gisa lan egin nuen jatorrizko herrialdean. Urtebete daramat Euskadin.

Erlijio musulmanean hezia izan nintzen. 11 urte nituenean amets erotiko bat izan nuen, islamiar hezkuntzako eskoletan egun horretarako prestatu ninduten, ametsean ez bezala, erlijioa izendatzen zuen pertsonaren sexua ez zegoen presente. Raqiak (apaiza) gaiaren berri jakiteak eta deabrua ateratzeko emango zizkidaten zartaden beldurrez, doktoarengana (medikua) eramateko eskatu nion amari, eta gizon batekin izandako ametsaren esperientzia kontatu nion, malko artean. Medikuak iradoki zuen Tangerren erlijioso ospetsu batengana eraman nintzatela. Leku beldurgarria zen, jipoitzen ari zen neska baten oihuak entzun nituen, eta erlijiosoak irteteko agintzen zien barruan zeuden deabruak. Handik ihes egin nuen, eta zin egin nuen ez nintzela inoiz itzuliko apaiz horrengana, baina aitak behartu ninduen zenbait saiotara joatera.

Bigarren hezkuntzan oso gaizki pasatu nuen, estres eta depresio handia izan bainuen deabruak "kentzeko" tratamenduaren ondorioz.

17 urterekin, erlijio musulmanean gehiago inplikatzeko hasi nintzen, nire familia eta ingurua pozik uzteko. Unibertsitate garaian nire aterpea Jainkoa baino ez zen eta homosexualitatekin sendatzeko eskatzen nion. Fedezko gizon bihurtu nintzen, pertsona oso erlijiosoez inguratzeraino, horietako batzuk Sirian ISISekin borrokatzeko bildu zirelarik. Nire familia pozik eta harro zegoen seme errukitsua, erlijiosoa eta familiako lehen kidea unibertsitatean ikasten edukitzeagatik, baina nire sexualitateak eta gizon helduenganako erakarpenak torturatu egiten ninduen.

Handik denbora batera, nire sexualitatea leku arriskutsuetan esperimentatzen hasi nintzen. Beldur handia nuen inguruko segurtasun ezagatik, nire lana eta bizitza gal nitzakeelako nire orientazio homosexualagatik. 2019an, Tanger-eko hondartzan, bost mutil hurbildu ziren oihuka: "Badakigu zer egiten duzun hemen!", "marikoi" oihukatzen zidaten baita ere, luma nuela esaten zidaten, eta horregatik, marikoia nintzela, kolpeak eta ostikadak ematen zizkidaten bitartean... denen artean jkipoi bat eman zidaten eta telefonoa lapurtu. Telefonoa eskuan, mehatxu egin zidaten esanez mundu guztiari esango ziotela gay nintzela.

Eraso hori ez nion poliziari salatu, Marokon legez kanpokoa baita homosexuala izatea, eta zuzenean atxilotu eta kartzelara eraman nintzaketen.

Leku berri bat aurkitu nuen, Hamanetan (bainu publikoak), non beste gizon batzuekin ezkutuan topo egiten nuen, kalean erasoak jasan eta salatu ez zituztenak eta beste batzuk kartzelara sartu zituztenak. Egoera horrek ikara eta estres handia eragin zidan, deskubritua izateagatik eta nire familiak jakin ahal zezakeelako. Ikasketetan kontzentratu ezin izateraino eragin zidan, hala eta guztiz ere Industria Ingeniaritzan graduatu eta lehen hezkuntzako irakasle izatea lortu nuen.



Edozein unetan nire homosexualitateari buruz jakiteak sortzen zidan beldurraren ondorioz, eta neska batekin ezkontzeko familiaren eta lanaren presioaren ondorioz, depresio handi batean sartu nintzen, eta denbora batez ospitalean egon behar izan nuen. Amak uste zuen ni ezkontuta konpondu egingo zirela pairatzen zituen depresio-arazoak.

Garai hartan elkarrizketa bat egin zidaten Marokoko telebista-kate batean, ez zuen zerikusirik gay izatearekin, baina hala ere, irainak jaso nituen telebista-kateko sare sozialen bidez. Horren ondorioz, nire familia eta lagunak nitaz lotsatzen ziren, eta hiru hilabete baino gehiagoz hitz egiteari utzi zioten, eta haien bizitzetatik aldendu ninduten.

Handik gutxira espainiar bat ezagutu nuen eta asteburu bat elkarrekin eman genuen, argazkiak Instagramen zintzilikatu genituen, argazkietan lagun gisa agertzen ginen, baina ikusi zituztenek harreman batean nengoela imajinatu zuten, senideek esan zidaten ez nengoela ondo burutik eta lotsa ematen ziela seme gay bat edukitzeak, mehatxu egin zidaten nire nagusiari eskolako lanean kontatuko ziotela, ni kanporatzeko.

Azkenean, Espainiara etortzea erabaki nuen, Bilbora, Gurutze Gorrira iritsi nintzen, eta han ALDARTEra bideratu ninduten. Elkartetik asilorako informazioa eta orientazioa jaso dut, sexu- eta genero-orientazioa dela eta. Harrezkero, ALDARTEn parte hartzen dut elkarri laguntzeko eta laguntza psikologikoa emateko taldeetan.

Ezin dut Marokora itzultzeko ideia jasan, kartzelan amaitzeko beldur naiz, nire osotasunagatik eta bizitzagatik beldur naiz.





## SOFIREN KONTAKIZUNA

Sofi naiz eta Jamaikakoa naiz eta urtebete baino gehiago daramat Bilbon.

Jamaikan estereotipo eta aurreiritzi asko daude LGTBI+ pertsonetarako. Uste dute LGTBI+ pertsona guztiek dutela GIBa, afeminatutako gizon guztiak homosexualak direla, eta lesbianak zuzentzeko bortxatuak izan daitezkeela. Halaber, uste dute haurrak homosexual bihurtzera behartzen dituztela eta transexualitatea buru nahasmendua dela eta pertsona mota horiek akatu beharko liratekeela.

Nire herrialdea oso herrialde arriskutsua da LGTBI+ pertsonentzat. Ez dute non bizi, lanetik botatzen dituzte, eta geratzen den leku bakarra kalea da, segurtasunik eza, bakardadea eta familien, erlijioaren eta gizartearen diskriminazioa.

Familiek, senitarteko bat gay, lesbiana edo transa dela jakiten dutenean, etxetik botatzen dute eta hitz egiteari uzten diote herriaren errepresalien, diskriminazioaren eta indarkeriaren beldur direlako; pertsona batzuen familiakideei euren etxeari su ematera iristen daitezke, LGTBI+ pertsonekin harremanen bat dutela jakiten badute. Elizetan artzainak edo apaizak ez ditu LGTBI+ pertsonak maite, diskriminazioa dago, elizak ez ditu onartzen.

Gobernua, erlijioa, kultura eta gizartea "kristauak" dira. Zaila da sexu- eta genero-aniztasunaren beste ikuspegi bat izatea; izan ere, heterosexualitatea baino ez dute onartzen, telebistan eta eskoletan sustatzen dena, eta eredu baliagarri bakarra heterosexuala da.

LGTBI+ pertsonen aurkako indarkeria-maila oso altua da, eraso fisikoak eta ahozkoak oso txikitatik hasten dira, afeminatutako haur bat badago, jipoitu egiten dute, taldetik kanporatzen dute, janaria botatzen diote, liburuak eta eskola-material guztia apurtzen dizkiote. Lesbiana edo gay bikote batek elkarri musu emango balio kalean erreakzioak oso bortitzak egogno lirateke; eraso egingo liekete, eta agian baita tirokatu, hil edo erre ere.

LGTBI+ pertsonak ezkutuan egon behar dute. 2011n hotel bat bisitatu nuen emakume trans gisa, eta hiru gizonek eraso egin zidaten, besoan eta hankan ebakiak egin zizkidaten, atzamarka egin zidaten eta kolpatu egin ninduten, ni neu izategatik, emakume trans bat bezala janzteagatik. Ez zen horrelako erasoak gertatzen zitzaizkidan lehen aldia, nire lagunak poliziarengana joan ziren gertatutakoaren berri ematera, eta ez zuten ezer egin.

Lagun bat hil zuten Kingstonen, eta beste batzuek Jamaikatik ihes egin behar izan dute. Alde egitea oso gogorra bada ere, beharrezkoa da bizirik irauteko. Ziur nago Jamaikan bizitzen jarraituko banu hilda egongo nintzatekeela, nahiz eta eszena mingarriak ahazten saiatu, eskolan eta lanean erasotu ninduten, gogoratzen dut Bilbora etorri baino egun batzuk lehenago (2021ean), hamar gizonek edo gehiagok nire etxeari eraso egin ziotela kolpe eta irain artean: "battiman, ez dugu gayrik nahi hemen", ni eta lagun bat bere etxean egoteagatik bakarrik.



Ni oso gaztea nintzela bota ninduten etxetik, nire familiak ez zuelako auzokoen diskriminazioa jasan nahi seme gay bat izateagatik. Nitaz lotsatzen ziren. Aitak ez zuen maitasun adierazpenik izan nirekiko, amak behin eta berriz jotzen ninduen heterosexualitatera bihurtu nahi ninduelako, eta anai-arrebek jo egiten ninduten eta esaten zidaten ez zutela ni bezalako seme-alabarik izan nahiko.

Jamaikatik eta familiatik ihes egin nuen nire bizitza salbatzeko, ni neu izan nahi nuen, ni izan eta neure burua maitatu behar nuen, eta ni neu izaten hasi nintzen, eta min handia hartu nuen, baina orain pozik eta harro nago nire erabakiaz. Nahi dudan pertsona eta emakumea izan naiteke azkenean, eta pozik nago horregatik.

Asilo-prozesuari dagokionez, Espainiara etorri nintzen babes eske, Jamaikan hilketa saiakeretatik ihes egiten nuelako. Nazioarteko Babesa eskatu nuen Madrilgo aireportuan, atxiloketa-zentroan egon nintzen itzultzaile batekin hitz egin ahal izan zuten arte. Gero Bilbora iritsi nintzen. Prozesua azkarra izan da eta asiloa eman didate, eskertuta nago erantzun positiboa izan dudalako, beldur bainintzen asiloa ukatuko zidatela eta Jamaikara itzuli beharko nuela, hiltzera. Antsietatea izan dut itxaronaldiagatik, niretzat asiloa ematea askapen handia izan da.

Lehen aldiz joan nintzen ekaniak 28ko manifestaziora Bilbon, eta beste mundu batean sentitu nintzen, kalean ibili nintekeelako poliziari beldurrik izan gabe, konfiantzaz, naizenaz harro nagoelako eta hori ikusgai egin dezakedalako. Gainera, inoiz pentsatu eta imajinatu ez dudan askatasuna bizitzen ari naiz. Jamaikan ezinezkoa den bizitza bat bizitzen ari naiz hemen, hemen aske bizi dezakey han ezinezkoa den zerbait, hemen kalean ibili naiteke beldurrik gabe nire bizitzagatik. Hemen LGTBI+ komunitatearen parte zara, han ezinezkoa da hori zu hil edo eraso gabe. Aldartera etorri ahal izatea, erakunde aparta, eta beste LGTBI pertsona batzuk ezagutu ahal izatea, ni neu izatea, benetan utopikoa da, esperientzia zoragarria da ez sentitzea norbaitek hilko nauela naizena naizelako.

Nire ametsa erabaki dudan bizitza bizitzea da, naizen bezala, beldurrik gabe, lan on bat izateko gai izan nahi dut eta gizarte honetan lagundu nire talentu guztiekin, nire apartamentua izan eta nire zergak ordaindu. Zoriontsu izan nahi dut eta hala naizela esan dezaket. Nire ametsa hemen bizitzen ari naiz, ni naizelako eraildua izateko beldurrik gabe, hori baita garrantzitsuena niretzat une honetan.





## ELIZABETHEREN KONTAKIZUNA

Elizabethe naiz, eta Ghanakoa naiz.

Han oso zaila da LGTBI+ pertsonentzat, ez delako onartzen. Komunitatearen gaitzespen handia dago, herrialdea kristaua delako, eta horregatik ez da onartzen. Pertsona bat ikusgai eghiten baldin bada, kartzelara joateko arriskua du, zure auzotik, etxetik, edonondik bota zaitzakete baita ere, eta ezagutzen ez zaituzten beste hiri batera joan behar duzu. Animalia bat bezala tratatzen zaituzte, eta eraso egin diezazukete. Han pentsaezina da manifestazio bat egotea eskubideak eskatzeko.

LGTBI+ pertsonen buruz esaten da deabru bat direla, eragin txarra dugula, eta batzuetan esaten dizute burutik gaixo zaudela. Ni iraindu egin naute, arazoak izan nituen aitarekin, nire auzoko gizonekin, egun batean borrokatu ginen, eta eraso egin zidaten.

Ezagutzen nituen beste neska batzuk, baita mutilak ere, arazoak izan zituztenak. Ezagutzen dut jendea kartzelan egon dena poliziak atxilotu zituelako bilera batean zeudenean. Polizia sartu eta pertsona guztiak atxilotu zituen, guztiak gay eta lesbianak ziren, eta inolako arrazoirik gabe atxilotu zituzten, LGTBI+ izateagatik bakarrik.

Nire herrian ez nautelako onartzen etorri nintzen, ezin nintzelako bikotekidearekin bizi eta libre bizi nahi nuelako. Mehatxuak jasotzen ari nintzen eta joan egin nintzen. Horregatik etorri nintzen Espainiara. Oso gogorra da nire familia uztea, baina ez nuen aukerarik, nire bizitza bizi behar nuen. Hona iritsi nintzenean, ez nuen asilorik eskatu beldurragatik. Nire herriko jendeak esaten zidan ezin nuela poliziarengana joan lesbiana nintzela esatera, banuen eskaera egiteko data jada, baina azkenean, beldur izan nintzen eta ez nintzen joan. Lesbiana nintzela esaten banuen ez nuela lanik aurkituko esaten zidaten, etorri berria nintzen eta ez nekien ezer ez ezta informaziorik eduki ere ez, eta ez nuen asiloa eskatu.

Nire familiak ere, batez ere hasieran, nire herrialdetik presionatzen ninduen hemen mutil batekin ezkontzeko, baina nik ez nuen nahi. Zertarako nator nire herrian bezala mutil batekin ezkondu behar badut? Libre izan nahi dut eta ezkondu behar ez izatea.

Hemen hobeto doakit, baina afrikarrekin nagoenean nire herrialdean dagoen gauza bera da. Arazoak izan ditut mutilekin. Egun batean Afrikako denda batean nengoen nire bikotekidearekin, eta "maitia" deitu nionean mutil batek esan zidan afrikarra nintzela, eta ezin nuela hori egin, gaixorik nengoela, Afrikan banengoen hil ahal izango ninduela, baina ez hemen Europan. Ia borrokatu ginen. Hemen afrikarrek ez dituzte onartzen gay edo lesbianak, horregatik ez dut esaten neskak gustatzen zaizkidanik, ezin da esan. Uste dut Afrikako LGTBI+ jendeari niri gertatzen zaidan gauza bera gertatuko zaiola, oraindik ideia negatibo asko baitago hemen. Oso zaila da Afrikako emakumea eta lesbiana izatea. Ni nekatuta nago azalpenak eman beharraz, baina azkenean, baina azkenean afrikarren tabernetara joateri utzi diot lasai egoteko.

Lasai bizitzea, beldurrik gabe, neska-lagunarekin, eta familia izatea da nire ametsa.













Dibulgazio-koaderno hau abiapuntu bat izatea espero dugu, giza eskubideak urratzen jarrai ez daitezen lanean jarraitzeko. LGBTBI+fobiaren aurka borrokatzeko eta migratutako eta errefuxiatutako LGBTBI+ pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Argi dago, koaderno honetan jasotzen ditugun istorioak irakurriz eta haueran murgilduz, aurretik zeregina daukagula. LGBTBI+ pertsona gisa ikusarazteko beldurra ezaugarri komuna da migratutako eta errefuxiatutako pertsona askorentzat, bai haien jatorrizko herrialdeetan, bai hemen. Bazterketa eta diskriminazioaren beldurrak eragindako ikusezintasuna, kasu askotan sare sozialik eza, bakardadea eta aukerak eta eskubideak galtzea dakar, hala nola asilo-prozesurako sarbidea galtzea, ikusi dugun bezala.

**Lan egin dezagun LGBTBI+ pertsona migratuen eta errefuxiatuen askatasun eta beldurrik gabe bizitzeko ametsak errealitate izan daitezen!**





# AURREIRITZIEK ERE BIDAIATZEN DUTE

GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA ETA LGTBI+ PERTSONA  
MIGRATU ETA ERREFUXIATUAK

